BESTELAKO XEDAPENAK

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

3826

EBAZPENA, 2012ko abuztuaren 22koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena, Gizartean babesik gabe edo/eta gatazkan dauden adingabeen kasuetan esku hartzeko eta bitartekotza egiteko Masterraren seigarren promozioa egiteko laguntzetarako deia egiten duena.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak ezartzen duenez, unibertsitateek irakaskuntzan genero-ikuspegia txerta dadin zaindu behar dute; EAEko Administrazioak, berriz, euskal unibertsitateek genero-ikuspegia jakintza-eremu eta diziplina guztietan txerta dezaten sustatu behar du. Bestalde, adingabekoen eremuan esku hartzeko, funtsezkoa da emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna prebenitzen lan egitea, neskatilamutikoei ematen zaizkien hezkuntza-prozesuetan hezkidetzaren printzipioak aplikatzeko eta berdintasunari balio nagusiena emateko. Izan ere, bai hezkuntza formalaren guneak bai lehen mailako sozializazio-prozesuak funtsezko zeregina dute sexua-generoa sistema eraikitzerakoan, non sexuaren arabera neskengan eta mutilengan rol, balio eta gaitasun desberdinak bultzatzen diren. Halaber, ez da ahaztu behar berdintasuna eraikiz emakumeen aurkako indarkeria prebenitzen dela, desberdintasunaren agerraldi larrienetako bat, alegia.

Emakundek eta Deustuko Unibertsitateak jakin badakite hori guztia oso gizarte-arazo konplexua dela, eta hori desagerrarazteko jarduera koordinatuak behar direla, alde batetik, botere-harreman desorekatuen egoera, kausa eta prebentzioari buruz ikertzeko, eta bestetik, profesionalei prestakuntza emateko eta arreta eta harrera zerbitzuak biktimen eta biktima eta biktimario izan daitezkeenen beharretara egokitzeko. Hori dela eta, haien iritziz, komenigarri da berriro ere elkarrekin lan egitea, langileei emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorreko prestakuntza ematen jarraitu ahal izateko, dagokion hitzarmena izenpetuz eta laguntzetarako deialdi publikoa eginez, Gizartean babesik gabe edo/eta gatazkan dauden adingabeen kasuetan esku hartzeko eta bitartekotza egiteko Masterraren seigarren promozioa finantzatzeko. Masterra, bestalde, 2012ko irailean hasiko da, eta 2013ko uztailean amaituko.

4/2005 Legearen 33. eta 53. artikuluetan ezartzen denez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak unibertsitateek jakintza-eremu eta diziplina guztietan genero-ikuspegia txerta dezaten sustatuko du, bai eta prestakuntza ere, bai herri administrazioetako langileentzat, bai emakumeen aurkako indarkeria prebenitu eta ezabatzen eta biktimak zaintzen eta haiei laguntzen diharduten erakunde pribatuetako langileentzat. Esandako guztiagatik, eta aipatu artikuluetan ezarritakoa betetzeko, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Eremua eta xedea.

Ebazpen honen xedea da laguntzetarako deia egitea, Gizartean babesik gabe edo/eta gatazkan dauden adingabeen kasuetan esku hartzeko eta bitartekotza egiteko Masterraren seigarren promozioa egiteko. Masterra Deustuko Unibertsitatean emango da, eta ikasturte bat iraungo du; 2012ko irailean hasi eta 2013ko uztailean amaituko da. Master ofiziala da, 60 ECTSkoa (Europako kredituak), eta ikasgai hauetan egituratuta dago:

1. ikasgaia. Diziplinarteko Esku-hartze Sozialaren oinarriak: planteamendu orokorrak eta genero-ikuspegiaren araberakoak.

2. ikasgaia. Esku-hartze Sozialerako tresna profesional espezifikoak.

3. ikasgaia. Gizartean babesik gabe edo/eta gatazkan dauden adingabeen kasuetan esku hartzea.

4. ikasgaia. Kanpoko praktikak.

5. ikasgaia. Master amaierako lana.

2. artikulua.– Diru-baliabideak.

Erakundearen aurrekontuetan horretarako ezarritako aurrekontu-kredituetatik aterako dira aurreko artikuluan adierazitako xedeak lortzeko diru-baliabideak. Zenbatekoa, hasieran behintzat, hogeita zortzi mila eta bostehun (28.500) eurokoa izango da. Horietarik hogeita bi mila eta zortziehun euro (22.800) 2012rako ordainketei dagozkie, eta gainerakoa, bost mila eta zazpiehun euro (5.700), 2013ko ordainketei.

3. artikulua.– Laguntzak emateko prozedura.

Deialdi hau lehiaketa-prozeduraz ebatziko da. Horretarako, garaiz eta behar bezala aurkeztutako eskabideak erkatuko dira, eta lehentasunaren araberako hurrenkeran jarriko dira, 10. artikuluan finkatutako irizpideen arabera. Puntu gehien lortzen dituen eskaeratik hasi eta horretarako kontsignatutako aurrekontu-kreditua agortu arte esleituko dira diru-laguntzak.

4. artikulua.– Onuradunak eta betekizunak.

1.– Onuradunak hamazortzi izango dira gehienez.

2.– Baldintza hauek betetzen dituzten pertsonek eska ditzakete laguntzak:

a) Adingabeen kasuetan esku-hartzeko eta bitartekotza egiteko Masterrean matrikulatuta egotea.

b) Administrazio-auzotasuna Euskal Autonomia Erkidegoan edukitzea, laguntza eskatu baino urtebete lehenagotik, gutxienez.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50. artikuluan ezarritakoa betez, obligazioak betetzea (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaz onartutako Testu Bategina).

d) Alta emanda egotea Ekonomia eta Ogasun Sailaren Hirugarrenen Erregistroan. Betekizun hori bete behar da, deialdia ebazteko eta ordainketak egin ahal izateko, laguntza ematearen aldeko ebazpena egonez gero.

e) Ebazpen honetan jasotzen dena betetzea.

5. artikulua.– Eskabideen aurkezpena, formularioak eta epeak.

1.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

2.– Eskabideak aurrez aurre aurkez daitezke, behar bezala betetako eskabide normalizatuaren arabera, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen egoitzan (Manuel Iradier 36, 01005),

edo azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako organoetan (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena).

Eskabide-eredua, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako dokumentazioa ebazpen honekin batera argitaratuko dira EHAAn, eta euskadi.net egoitza elektronikoan ere eskuragarri egongo dira.

3.– Eskabideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako ereduak –bai aurrez aurre, bai bide elektronikoa erabiliz– izapidetzeko zehaztapenak honako egoitza elektronikoan daude eskuragarri: http://www.emakunde.euskadi.net/u72-20030/eu/contenidos/ayuda_subvencion/ayuda_mediacion_menores/eu_ayuda/ficha_procedimiento.html

Orobat, eskabideak bide elektronikoaren bidez aurkeztu ahalko dira honako egoitza elektroniko honen bidez: https://www.euskadi.net

Eskabidearen osteko izapideak bide elektronikoz egiteko: http://www.euskadi.net/nirekudeaketak egoitza elektronikoa erabili ahal izango da.

4.– Eskabidea izapidetzeko eta agiriak aurkezteko bide bat edo bestea erabiltzeak, hau da, aurrez aurrekoa edo elektronikoa erabiltzeak, ez du behartzen aurrerantzean ere prozedurako gainerako izapideak egiteko bide bera erabiltzera, eta edozein momentutan alda daiteke aukeratutako bidea.

5.– Posta-bulegoaren bidez aurkezten diren eskabideak kartazal irekian jarri beharko dira, egiaztatu aurretik posta-zerbitzuko funtzionarioek eguna eta zigilua jartzeko. Hala egin ezean, dagokion bulego publikoan noiz sartzen den, egun horretan aurkeztutzat joko da.

6.– Eskatzaileek eskabidea eta dokumentazioa euskaraz edo gaztelaniaz aurki ditzakete, nahi duten eran. Orobat, prozeduran zehar, eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen erabilera normalizatzeari buruzko azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

6. artikulua.– Eskatzailearen betekizun jakin batzuk egiaztatzea.

1.– Eskabideetan aukera egongo da laguntza eskatzen duenak berariaz onar dezan gainerako datuak edo agiriak organo kudeatzaileak lortu edo egiaztatzea, nahiz aurrez aurreko bidea nahiz bide elektronikoa erabiltzen duenean, betiere Administrazio Publikoak dituen egiaztatze-, kontrolatze- eta ikuskatze-ahalmenen kalterik gabe.

2.– Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren aldaketa aplikatuz, honako betekizun hauek egiaztatuko dira, eskabidean txertatuko den erantzukizunpeko adierazpen baten bidez:

● Beste edozein administraziok edo erakundek –publikoa zein pribatua izan– helburu bererako ematen dituen diru-laguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo bestelako baliabideak eskatuz eta, hala badagokio, eskuratuz gero, horren berri ematea.

● Eskatzaileak ez duela diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko zehapen administratibo edo penalik, ezta ere horretarako gaitasuna kentzen dion lege-debekurik, berariazko erreferentzia eginez sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik jarritakoei, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen seigarren Azken Xedapenean xedatutakoarekin bat etorriz.

● Eskatzailea ez dagoela sartuta itzultze- edo zehapen-prozedura batean, hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta bere erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan.

● Egiazkoak direla eskabidean eta erantsitako agirietan jasotako datuak.

● Eskatzaileak betetzen dituela indarrean dagoen legedian laguntza hauen onuradun izateko ezarritako baldintza guztiak.

Laguntza emateko ebazpena hartu aurretik, egiaztatu egin behar dira aipatutako betekizun horiek, bai dagozkion egiaztagiriak aurkeztuta, bai organo kudeatzaileari baimena emanda, zuzenean egiazta dezan.

3.– Eskatzailea ez badago erregistratuta Ekonomia eta Ogasun Sailaren Hirugarrenen Erregistroan edo aldatu egin nahi baditu erregistro horretan dituen banku-datuak, dokumentazioa aurkeztu behar du Ogasun Sailak eredu gisa ezarritako formularioko eskabidearekin batera. Formulario hori URL honetatik har daiteke: http://www.euskadi.net/r33-2288/eu/contenidos/autorizacion/alta_terceros/eu_7999/hirugarrenaren_alta.html

4.– Jarduten duen Administrazioak ofizioz egiaztatuko du azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50. artikuluan jasotako eskakizunak betetzen direla.

7. artikulua.– Eskabideak eta agiriak.

1.– Ebazpen honetako laguntzak eskatzen dituen orok agiri hauek erantsi behar dizkio eskabideari:

● Nortasun agiri nazionala, pasaportea edo pertsona fisikoaren nortasuna egiaztatzen duen antzeko dokumentua, baldin eta eskatzaileak egiaztatzeko baimenik ematen ez badio Administrazioari.

● Eskatzailearen udalak edo dagokion administrazioak emandako erroldatze-txartela.

● Deustuko Unibertsitatearen onarpen-agiria, edo, oraindik jaso ez bada, onarpen-eskabidearen kopia.

● Kurrikuluma eta azalpen-memoria (II. eranskina).

● Beste finantziazio-iturri batzuei buruzko aitorpena (I. eranskina).

● Eskabide-agiria, erantzukizunpeko aitorpenekin batera.

● Hirugarren interesdunaren datuen fitxa, eskatzaileak –eta, behar izanez gero, finantza-erakundeak– betea.

2.– Beharrezko iritziz gero, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak egokitzat jotzen duen informazio osagarria eska dezake.

3.– Laguntza ukatuz gero, aurkeztutako agiriak berreskuratzeko epea hilabetekoa izango da Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariaren ebazpena argitaratzen denetik aurrera, baldin eta ebazpen horren aurkako errekurtsorik jartzen ez bada. Izan ere, errekurtsoa jartzen bada, errekurtsoa ezesteko ebazpena jakinarazten denetik aurrera zenbatuko da epea.

8. artikulua.– Eskabideetan egindako akatsak zuzentzea.

Laguntzetarako eskabideak behar bezala betetzen ez badira edo 7. artikuluan eskatutako agiriren bat falta badute, Emakundek falta den agiria aurkezteko edo antzemandako hutsa zuzentzeko eskatuko dio eskatzaileari, eta horretarako, hamar egun balioduneko epea emango dio jakinarazpenaren egunaren biharamunetik aurrera. Horrez gain, eskatutakoa egin ezean eskaera ezetsi egingo dela ohartaraziko zaio eskatzaileari; ezesteko, aurretiaz ebazpena eman beharko

da, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42. artikuluan agindutakoari jarraiki (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearena).

9. artikulua.– Hautaketa Batzordea.

Hautaketa-batzorde bat eratuko da aurkeztutako eskaerak aztertzeko eta ebaluatzeko. Hona hemen kideak:

Batzordeburua: idazkari nagusia.

Batzordekideak:

– Generoaren arloko plangintza eta Ikerketaren arduraduna.
– Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko teknikari bat.

Idazkaritza: Lege Aholkularitzako arduraduna izango da.

10. artikulua.– Laguntzak esleitzeko irizpideak.

1.– Diru-laguntzak emateko eta haien zenbatekoak zehazteko, jarraian adieraziko diren irizpideak hartuko ditu kontuan Hautaketa Batzordeak, bakoitzari emandako puntuen arabera:

a) Unibertsitateko prestakuntza masterraren edukietara egokitzea. 20 puntu, gehienez.

b) Curriculumaz kanpoko prestakuntza osagarria. 20 puntu, gehienez.

c) Euskara jakitea. 20 puntu, gehienez.

d) Arlo akademikoan egindako lanak: irakaskuntzan laguntzea, ikerlanak, eta abar: 10 puntu, gehienez.

e) Boluntario zein profesional gisa egindako lanak. 10 puntu, gehienez.

f) Beste hizkuntza batzuk jakitea. 10 puntu, gehienez.

g) Masterra egiteko arrazoi eta zio pertsonalak. 10 puntu, gehienez.

2.– Epaimahaiak elkarrizketak egin ditzake hautagaiekin, bai eta horien ahalbide ekonomikoak eta laguntza osagarriak aztertu ere.

11. artikulua.– Laguntzen zenbatekoa.

Hautagai bakoitzari emango zaion diru-laguntzaren zenbatekoa matrikularen kostuaren % 20 izango da, gutxienez.

4. artikuluan ezartzen den onuradunen gehienezko kopurua, alegia, hamazortzi onuradun baino gutxiago badaude, zuzkidura-soberakina proportzionalki banatuko da onuradunen artean.

12. artikulua.– Beste diru-laguntza edo laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

Deialdi honetan azaltzen diren diru-laguntzak eta xede berbererako bestelako erakunde publiko zein pribatuek eman litzaketenak bateragarriak dira, betiere, gainfinantzaketarik gertatzen ez bada. Gertatuz gero, dagokion gehienezko mugaraino murriztuko da diru-laguntza.

13. artikulua.– Ebazpena.

1.– Eskabideak Hautaketa Batzordeak ebaluatuko ditu, diru-laguntzak esleitzeko irizpideen arabera; ondoren, proposamena bidaliko dio Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko

zuzendariari. Emakundeko zuzendariak ebazpen adierazia emango du, zeinaren bidez lehiaketa-prozesua amaituko baita eta diru-laguntza nori eman eta nori ukatu zaion adieraziko baita. Ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie eskatzaileei. Emandako diru-laguntzen zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ere argitaratuko da, jendeak horren berri izan dezan.

2.– Ebazpen honen babesean egindako eskabideak ebazteko eta ebazpena jakinarazteko epea hiru hilekoa izango da gehienez ere, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.

Epe horretan interesdunari ebazpenik jakinarazten ez bazaio, diru-laguntzarako eskaera ezetsi egin dela esan nahiko du, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearena).

3.– Ebazpenean, pertsona onuradunen zerrenda jasotzeaz gain, ordezkoen zerrenda ere jaso daiteke, onuradunen batek laguntzari uko eginez gero, ordezkoengana jo ahal izateko.

14. artikulua.– Onuradunen betebeharrak.

Ebazpen honetan arautzen diren diru-laguntzen onuradunek betebehar hauek izango dituzte:

a) Emandako diru-laguntza onartu behar dute. Horrela, diru-laguntza eman zaiela jakinarazteko idazkia jaso eta hilabeteko epean onuradunek diru-laguntzari beren-beregi eta idatziz uko egiten ez badiote, diru-laguntza onartu egin dutela esan nahiko du.

b) Diru-laguntza zertarako eman den, xede horretarako erabili behar dute, eta diruz lagunduko diren jarduerak Emakundek noiznahi egiaztatzea onartu beharko dute.

c) Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, beren eginkizunetan dihardutela, deialdi honen kontura jasotako diru-laguntzen inguruan eskatutako informazioa eman behar diete.

15. artikulua.– Diru-laguntzaren ordainketa.

Diru-laguntza zatika ordainduko da: ehuneko laurogeia, Deustuko Unibertsitateak matrikulatutako ikasleen zerrendaren eta ikasturte horri dagozkion lehen bi ordainketak egin izanaren ziurtagiria bidali ondoren; bigarren ordainketa, gainerako ehuneko hogeia, Deustuko Unibertsitateak onuradunen ikasturteko asistentziari eta aprobetxamenduari buruzko jarraipen-txostena bidali ondoren.

16. artikulua.– Diru-laguntza emateko inguruabarrak aldatzea.

1.– Diru-laguntza emateko kontuan izandako inguruabarren bat aldatzen bada, Emakundeko Zuzendaritzari jakinarazi behar zaio. Diru-laguntzak emateko ebazpena aldatu egin daiteke, baldin eta diru-laguntza emateko kontuan izan diren inguruabarrak aldatu badira -betiere, diru-laguntzaren helburua bete bada- eta bestelako erakunde publiko edo pribatu batek, aldi berean, laguntzarik edo diru-laguntzarik eman badu.

2.– Aurreko artikuluan aipatutako agiriak edo, bestela, artikulu honetako aurreko zatian aipatutakoak jaso, eta agiriak aztertu eta ebaluatu ondoren, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariak emandako diru-laguntza aldatu eta/edo likidatuko du, administrazio-bidea amaitutzat emango duen ebazpen baten bidez; horrez gainera, diru-laguntzen zenbatekoak egokituko ditu, hala badagokio.

17. artikulua.– Ez-betetzeak.

Diru-laguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzetako bat edo batzuk betetzen ez direla egiaztatzen bada, eta bereziki, justifikaziorik gabe masterreko eskoletara joateari utzi zaiola edo masterra bertan behera utzi dela egiaztatzen bada, jasotako zenbatekoak eta zenbateko horri dagozkion legezko interesak itzuli egin beharko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusira, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoaren arabera. Horretaz gain, dagozkion gainerako ekintzak gauzatuko dira.

18. artikulua.– Dirua itzultzeko prozedura.

Ezarritako baldintzak eta/edo betebeharrak betetzen ez direla eta, emandako diru-laguntza ezeztatu eta, hala badagokio, diru-laguntza itzultzeko jarraituko den prozedura abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan xedatutakoari lotuko zaio. Dekretu horrek honako hau ezartzen du:

a) Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariak prozeduraren hasiera eta prozedura funtsatzeko arrazoiak jakinaraziko dizkio interesdunari, eta 15 egun balioduneko epea emango dio, egokitzat joz gero, alegazioak aurkezteko.

b) Alegazioak jaso ondoren edo alegaziorik egin gabe epea amaitu ondoren, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariak amaitutzat joko du prozedura, ebazpen baten bidez. Ebazpen horrek amaiera emango dio administrazio-bidari.

Ebazpenean baldintzak bete ez direla adierazten bada, galdutzat joko da diru-laguntza jasotzeko eskubidea, eta, beharrezkoa bada, jasotako zenbatekoak eta aplikatzekoak diren legezko interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusira itzultzeko aginduko da. Dirua hil biko epean itzuli beharko da, jakinarazpena egiten den egunetik hasita. Epe hori borondatezko alditzat joko da.

c) Borondatezko aldian itzulketarik egiten ez bada, Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Saileko organo eskudunari jakinaraziko zaio, premiamendu-bideari ekin diezaion, aplikatzekoa den legezko araudian xedatutakoari jarraituz.

d) Aplikatzekoak diren arauak ez betetzeagatik diru-laguntzak itzultzeari buruz artikulu honetan araututako prozedura ebazteko eta jakinarazteko epea sei hilekoa izango da, gehienez ere.

19. artikulua.– Datu pertsonalen tratamendua.

Deialdi honetan parte hartzen duten lagunen datu pertsonalak Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen fitxategi automatizatu batean sartuko dira, datuen tratamendua egiteko. Fitxategi hori Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakora lotuta dago eta Erakundeak sustatzen dituen laguntzak kudeatzeko baino ez da erabiliko. Erakundeak sustatutako laguntzak kudeatzeko bakarrik erabiliko da fitxategi hau. Hala nahi dutenek, legeak aurreikusten dituen eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dituzte.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Ebazpen honek amaitu egiten du administrazio-bidea, eta, beraren aurka, interesdunek berraztertzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa

aurkez dezakete zuzenean, dagokion administrazioarekiko auzietako epaitegian, hil biko epean, ebazpena EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.

Bigarrena.– Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera sortuko ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko abuztuaren 22a.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARÍA SILVESTRE CABRERA.

GIZARTEAN BABESIK GABE EDO/ETA GATAZKAN DAUDEN ADINGABEEN KASUETAN ESKU HARTZEKO ETA BITARTEKOTZA EGITEKO MASTERRA EGITEKO LAGUNTZAK ESKABIDEA

Izartxoa (*) duten datu guztiak nahitaez bete behar dira

ESKABIDEA AURKEZTEN DUENA * 1

◯ Titularra ◯ Ordezkaria

DATU PERTSONALAK

TITULARRA

Izena / Erakundearen Izendapena *

Dokumentu Mota *

Lehen Abizena *

Bigarren Abizena *

Zenbakia * - LETRA

Tel. Finkoa

Tel. Mugikorra

Sexua * ◯ Gizona ◯ Emakumea

ORDEZKARIA

Izena / Erakundearen Izendapena

Dokumentu Mota

Lehen Abizena

Bigarren Abizena

Zenbakia - LETRA

Tel. Finkoa

Tel. Mugikorra

Sexua ◯ Gizona ◯ Emakumea

JAKINARAZPENA * 2

◯ Elektronikoa ◯ Posta bidez

HELBURU POSTALETARAKO (Posta bidezko jakinarazpenetarako soilik) *

Herrialdea *

Helbidea * **Zk** **Pisua** **Letra**

PK * **Udalerria *** **Lurraldea ***

JAKINARAZPEN ELEKTRONIKOENTZAT 3

Posta elektronikoa (puntu eta koma (;) bitartez bereiziak)

Mugikorraren telefono zenbakia (puntu eta koma (;) bitartez bereiziak)

JAKINARAZPENAK ETA OHARRAK JASO NAHI DIREN HIZKUNTZA *

◯ Euskera ◯ Gaztelania

ERANTZUNKIZUNPEKO ADIERAZPENAK

☐ Ez naiz laguntzarik jasotzen ari xede eta helburu berarekin Administrazio Publikoen edo erakunde pribatuen eskutik.

☐ Administrazio Publiko edo erakunde pribaturen bati laguntza bat eskatu diodala eta eman didatela (atal honen datuak Eranskinean zehaztu beharko dira)

☐ Administrazio Publiko edo erakunde pribaturen bati laguntza bat eskatu diodala eta oraindik erantzunaren zain nagoela (atal honen datuak Eranskinean zehaztu beharko dira)

☐ Ez nagoela sartuta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta horren erakunde autonomoek emandako ezaugarri bereko beste laguntza edo diru-laguntza batzuen esparruan, itzultzeko edo zigortzeko ezein prozeduratan.

Diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren zigor- edo administrazio-arloko zigorrik ez daukat, eta ez nago laguntza horiek jasotzeko ezgaitzen nauten lege-debekuen eraginpean, beren beregiko erreferentzia egiten zaielarik Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko azken xedapenetako seigarrenaren arabera sexu-diskriminazioa egin izanagatiko lege-debekuei.

Egunean ditudala indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, arauz zehaztu den bezala.

Eskabide honetan bildutako eta eskabideari erantsitako dokumentazioan bildutako datuak egiazkoak direla.

Laguntza hauen onuradun izateko indarrean dagoen legediak ezarritako baldintzak betetzen ditudala.

ADOSTASUNAK

Nortasun datuak

☐ Deialdi honen atal kudeatzaileari dagokion Administrazioan baliabide elektronikoen bidez, edo bere kasuan, aukeran dauden baliabideen bidez, egiaztatzeko, baieztatzeko edo ziurtatzeko baimena ematen diot.

DATU PERTSONALAK BABESTEKO LEGEA

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa betez, Eusko Jaurlaritzaren Eusko Jaurlaritzaren **Emakunde - Instituto Vasco de la Mujer** jakinarazten dizu eman dituzun eta zure eskabidean agertzen diren datuak **Emakunderen Pertsonen Erregistroa** izeneko fitxategian sartu direla. Eusko Jaurlaritzaren **Emakunde - Instituto Vasco de la Mujer** da fitxategi horren titularra, eta laguntza emateko espedienteak kudeatzea du helburu. Aldez aurretik, Datuak Babesteko Agentziari emango zaio horren berri, hark baitauzka datuen segurtasun osoa bermatzeko behar diren segurtasun-neurriak. Datu horiek, bestalde, ez zaizkie beste pertsona batzuei jakinaraziko, legeak bideratutako kasuetan izan ezik. Datu pertsonalen babesari buruz indarrean dauden arauei jarraiki, eskatzaileak badu sartzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideez baliatzea, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoak berariaz aitortzen duen bezala. Horretarako, baduzu Eusko Jaurlaritzaren **Emakundeko Erakunde Antonomiadunera** jotzea (Manuel Iradier kalea, 36, 01005, Gasteiz).

Administrazio Publikoak erkatu ahal izango ditu adierazitako datuak eta berariazko egiaztapenak egin ahal izango ditu laguntzak behar bezala esleitzeko.

_____ (e)n _____ (e)an

(Titularraren edo ordezkariaren sinadura)

ESKABIDEAREN ARGIBIDEAK

1 ESKABIDEA AURKEZTEN DUENA

Eskatzaileak bere izenean jokatzen badu, "ESKABIDEA AURKEZTEN DUENA" atalean "Titularra" aukeratu behar du eta "DATU PERTSONALAK" atalean Titularrari dagozkion datuak bete. Eskabidea titularrak sinatzen du.

Eskatzaileak beste pertsona baten ordezkari gisa jokatzen badu, "ESKABIDEA AURKEZTEN DUENA" atalean "Ordezkaria" aukeratu behar du eta, "DATU PERTSONALAK" atalean, Titular bezala ordezkatzen duen pertsonaren datuak bete behar ditu eta bere datuak Ordezkarian. Eskabidea ordezkariak sinatzen du.

Pertsona juridikoak, beti jokatzen dute ordezkari gisa, beraz, "ESKABIDEA AURKEZTEN DUENA" atalean "Ordezkaria" aukeratu behar du eta, "DATU PERTSONALAK" atalean, Titular bezala ordezkatzen duen pertsonaren datuak bete behar ditu eta bere datuak Ordezkarian. Eskabidea ordezkariak sinatzen du.

2 JAKINARAZPENA

Eskatzaileak jakinarazpenak zein kanaletik jaso nahi dituen aukera dezake: posta bidez edo elektronikoa.

POSTA BIDEZ: "HELBURU POSTALETARAKO" atalean adierazitako helbidera igorriko zaizkio jakinarazpenak

ELEKTRONIKOA: eskatzaileak jakinarazpenak **www.euskadi.net/nirekudeaketak** -eko "Nire gestioak" ataleko sarrera ontzian jasotzen ditu. "Nire gestioak" atalean sartzeko beharrezkoa izango da eskatzaileak indarrean dagoen ziurtagiri elektroniko bat izatea (ONA, Dnie, Herritar Ziurtagiria, Erakunde Ziurtagiria, FNMT, ...)

3 JAKINARAZPEN ELEKTRONIKOENTZAT

Eskatzaileak jakinarazpen elektronikoak jasotzea erabaki badu, admisnitrazioak posta elektroniko edo mugikor bidezko zerbitzu bat jartzen du zure eskura, jakinarazpen bat bidaltzen dizun bakoitzean zu ohartarazteko.

Nahi dituzun posta elektroniko edota mugikor zenbaki idatz ditzakezu, kasu bietan datu bakoitza puntu eta koma (;) bitartez bereiziz.

I. ERANSKINA
ERAKUNDEAREN DATUAK - DOKUMENTAZIOA

BESTE FINANTZIAZIO ITURRIAK

Beste finantziazio iturririk izan al dituzu?	◯ Bai ◯ Ez	
Zeintzuk?	**Emandako zenbatekoa**	**Eskatutako zenbatekoa**
Guztira		

Beste laguntzarik eskatu al dituzu?	◯ Bai ◯ Ez
Zein erakunderi?	**Eskatutako zenbatekoa**
Guztira	

DOKUMENTAZIO AURKEZTUA

	Dokumentazio aurkeztaren harremana
☐	Entitatearen akreditazioa (NAN, pasaportea,...)
☐	I. Eranskina - Beste finanziazio iturriak
☐	II. Eranskina - Curriculum
☐	Erroldatze-ziurtagiria
☐	Unibertsitatean onarpena edo eskabide idazkiaren onarpena-ziurtagiria

Erakundearen ordezkariaren sinadura

II. ERANSKINA - CURRICULUM ETA MEMORIAREN MODELOA

INFORMAZIO PERTSONALA 1

Lehen Abizena: _____ **Bigarren Abizena:** _____

Izena: _____

Helbidea (Kalea/Plaza): _____ **Zk:** _____ **Pisua:** _____

Herria: _____ **PK:** ☐☐☐☐☐

Telefonoa: ☐☐☐☐☐☐☐☐☐ **Mugikorra:** ☐☐☐☐☐☐☐☐☐ **Faxa:** ☐☐☐☐☐☐☐☐☐

E-mail: _____

Nazionalitatea: _____ **Jaiotza-data:** _____

Sexua: ◯ Gizona ◯ Emakumea

LAN-ESPERIENTZIA

Berrienetik hasita, deskribatu lanbide garrantzitsu bakoitza, banan-banan.

Hasiera-data: _____ **Amaiera-data:** _____

Lanbidea edo betetako kargua: _____

Eginkizunak eta ardura nagusienak:

Enpresa edo enplegu-emailearen izena: _____

Enpresa edo sektore-mota: _____

HEZKUNTZA ETA PRESTAKUNTZA

Berrienetik hasita, deskribatu lanbide garrantzitsu bakoitza, banan-banan.

Hasiera-data: _____ **Amaiera-data:** _____

Lortutako titulua: _____

Ikasgai nagusienak edo ikasitako gaitasun profesionalak: _____

Ikastetxearen izena eta mota: _____

Nazioarteko sailkapenarekin edo sailpen nazionalarekin bat egiten duen maila: _____

GAITASUNAK ETA TREBETASUN PERTSONALAK 2

Hizkuntzak

Zure ama-hizkuntza adierazi (ama-hizkuntza bat baino gehiago baduzu, bakoitza adierazi):

Ama-hizkuntza: _____

Beste hizkuntza(k) - Autoebaluazioa:

Hizkuntza	Ulermena		Ahozkoa		Idatzia
	Ahozko ulermena	Idatzizko ulermena	Ahozko elkarreragina	Ahozko gaitasuna	

Gaitasunak eta jendetasuna

Trebetasun horiek deskribatu eta adierazi zein testuingurutan garatu diren.

Gaitasunak eta antolatzeko trebetasuna

Trebetasun horiek deskribatu eta adierazi zein testuingurutan garatu diren.

Gaitasunak eta trebetasun teknikoak

Trebetasun horiek deskribatu eta adierazi zein testuingurutan garatu diren.

MEMORIA

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean eta bereziki, eskatutako bekaren ikerketa baiari buruz duten ibilbidea, esperientzia eta prestakuntza.

BESTE INFORMAZIO BATZUK

Ahal honetan garrantzia eduki dezakeen beste edozein informazioa adierazi, adibidez jende-kontaktua, erreferentziak, argiltapenak, etab.

Erakundearen ordezkariaren sinadura

DOKUMENTUARI BURUZKO AZALPENAK

1 INFORMAZIO PERTSONALA

Curriculuma nola betetzeko informazioa jasotzeko, helbide honetara jo:

http://europass.cedefop.europa.eu/europass/home/vernav/Europass+Documents/Europass+CV.csp;

2 GAITASUNAK ETA TREBETASUN PERTSONALAK

Autoebaluazio taula sei maila-eskalako hizkuntzetarako erreferentzia den Europako esparru komunean oinarritzen da, EuropakoKontseiluak egina.

Taulak honako 3 mailak ditu:

- oinarrizko erabiltzailea (A1 eta A2 mailak);
- erabiltzaile independentea (B1 eta B2 mailak);
- erabiltzaile gaitua (C1 eta C2 mailak).

Atzerriko hizkuntzan zure maila autoebaluatzeko, hurrengo deskribapenak irakurri eta zure curriculumean agertzen diren laukitxoetan (ahozko ulermena, idatzizko ulermena, ahozko elkarreragina, ahozko adierazpena, idazmena) maila egokia adierazi (adibidez Bikain - C2).

Ahozko ulermena	**A1**	Gai naiz niri, nire familiari eta inguruko gauzei buruzko hitz arruntenak eta oso oinarrizko esapideak ulertzeko, jendeak astiro eta argi hitz egiten duenean.
	A2	Gai naiz lexiko eta esapide erabilienak ulertzeko zuzenean dagozkidan arloetan (adib. oinarrizko informazioa nitaz, nire familiaz, erosketez, inguruaz, lanaz).
	B1	Gai naiz ideia nagusiak ulertzeko, hizketa argi eta estandarra denean, eta gaiak ezagunak direnean: lana, eskola, aisialdia etab. Ulertzen dut gaur egungo gaiez edo interes pertsonaleko edo profesionaleko gaiez diharduten telebista-edo irrati-saioetako ideia nagusiak, baldin eta poliki eta argi hitz egiten badute.
	B2	Gai naiz konferentzia eta hitzaldi aski luzeak ulertzeko. Era berean, argudio konplexuak ere ulertzen ditut, baldin eta gaia gutxi-asko ezaguna badut. Ulertzen ditut telebistako albistegiak eta eguneko gorabeherei buruzko saio gehienak.
	C1	Gai naiz berbaldi luze bat ulertzeko, oso garbi egituratuta ez badago ere edo erlazioak oso esplizituak izan ez arren. Telebista- programak eta filmak neke handirik gabe ulertzen ditut.
	C2	Ez dut inolako arazorik edozein hizketaldi ulertzeko, ez zuzenekoa, ezta komunikabideetakoa ere, baita jatorrizko hiztunen abiaduran hitz egiten dutenean ere, baldin eta bere hizkera-moduarekin ohitzeko denbora badut.
Idatzizko ulermena	**A1**	Gai naiz hitz eta izen oso ezagunak ulertzeko, baita esaldi oso sinpleak ere. Adibidez, iragarkietan, posterretan edo katalogoetan.
	A2	Gai naiz testu labur eta oso sinpleak irakurtzeko. Gai naiz informazio jakin eta aurreikus daitekeena eguneroko dokumentu arruntetan bilatzeko, esate baterako iragarkietan, prospektuetan, menuetan eta ordutegietan. Gai naiz gutun pertsonal labur eta sinpleak ulertzeko.
	B1	Gai naiz hizkera arruntean idatzitako testuak edo nire lanari buruzkoak ulertzeko. Gai naiz gertaeren deskribapena edota sentimenduen eta desioen azalpena ulertzeko gutun pertsonaletan.
	B2	Gai naiz gaur eguneko gaiei buruzko artikuluak eta txostenak irakurtzeko, egileak jarrera jakin bat edota ikuspuntu berezia erakusten duenean. Gai naiz gaur eguneko hitz lauzko literatura-testuak irakurtzeko.
	C1	Gai naiz gertakarietan oinarritutako testuak edo literatura-testu luze eta konplexuak ulertzeko eta estiloak bereizteko.
	C2	Gai naiz edozein testu-mota irakurtzeko, baita abstraktuak eta egituraz edo hizkuntzaz zailak direnak ere. Adibidez, eskuliburuak, artikulu espezializatuak edo literatura-lanak.

Ahozko elkarreragina	**A1**	Gai naiz modu sinplean komunikatzeko, baina solaskidearen menpe nago, hark prest egon behar baitu nik esandakoa astiro errepikatzeko, birformulatzeko edo nahi dudana esaten laguntzeko. Gai naiz berehalako premiei edo oso gai arruntei buruzko galdera errazak egin eta erantzuteko.
	A2	Gai naiz komunikatzeko jarduera eta arlo ezagunetan, informazio-trukea zuzena eta sinplea denean. Elkarrizketa osoa jarraitzeko adina ulertzen ez badut ere, gai naiz informazio-truke labur-laburrak egiteko.
	B1	Gai naiz hizkuntza mintzatzen den herrialdera egindako bidaia batean gerta litezkeen egoera gehienei aurre egiteko. Gai naiz, prestatu gabe ere elkarrizketan parte hartzeko, gaiak ezagunak direnean, interes pertsonalekoak edo bizimodu arruntekoak (familia, aisialdia, lana, bidaiak, albisteak,..).
	B2	Gai naiz jatorrizko hiztun batekin normal mintzatzeko, berezkotasun eta erraztasun nahikoarekin. Gai naiz elkarrizketan era aktiboan parte hartzeko eta nire iritziak azaldu eta defenditzeko egoera ezagunetan.
	C1	Gai naiz natural eta jarioz hitz egiteko, esapideen bila nabarmen luzatu gabe. Badakit hizkuntza gizarteedo lanbide-erlazioetan malgu eta eraginkor erabiltzen.
	C2	Gai naiz ahalegin handirik gabe, edozein elkarrizketa edo eztabaidatan parte hartzeko. Esamoldeak eta lagunarteko hizkera ondo erabiltzen ditut. Ideiak jarioz eta ñabardura guztiekin adierazten ditut. Zailtasunen bat badut gai naiz atzera egiteko eta hutsunea trebeziaz konpontzeko solaskidea ia konturatu gabe.
Ahozko adierazpena	**A1**	Gai naiz esaldi eta esapide sinpleak erabiliz nire bizilekua eta jende ezaguna deskribatzeko.
	A2	Gai naiz esaldiak eta esapideak sorta batean erabiltzeko honelakoak era sinplean deskribatuz: nire edo beste norbaiten familia, nire bizimodua, ikasketak, oraingo edo lehengo lana.
	B1	Gai naiz esaldiak era sinplean josteko, honelakoak deskribatzearren: esperientziak, gertaerak, ametsak, itxaropenak eta helburuak.
	B2	Badakit zehatz eta argi hitz egiten nire intereseko gai askori buruz.
	C1	Gai naiz deskribapen argiak eta xeheak egiteko gai konplexuei buruz, horiekin lotutako gaiak integratuz, zenbait puntu garatuz eta berbaldia egoki amaituz.
	C2	Gai naiz deskribapen edo argudioen azalpen argiak jarioz egiteko eta testuinguruari egokitutako estiloan, horretarako egitura logiko eta eraginkorrak erabiliz, entzuleari ideia nagusiei erreparatzen eta haiek gogorarazten laguntzeko.
Idatzizko adierazpena	**A1**	Gai naiz postal laburrak eta errazak idazteko, esaterako zoriontzekoak. Gai naiz nire datu pertsonalak galdetegi batean idazteko. Adibidez, izena, nazionalitatea edo helbidea hoteleko erregistro-orrian.
	A2	Gai naiz berehalako premiei buruzko ohar eta mezu sinpleak idazteko. Gai naiz gutun pertsonal oso sinpleak idazteko, adibidez eskerrak ematekoak.
	B1	Gai naiz testu sinpleak eta koherenteak idazteko, gai ezagunen edo interes pertsonalekoen gainean. Gai naiz gutun pertsonalak idazteko, nire esperientziak eta irudipenak adieraziz.
	B2	Gai naiz nire intereseko gai askoren inguruan, testu argiak eta xeheak idazteko. Gai naiz idazlan bat edo txosten bat egiteko informazio jakin bat adieraziz edota iritzi baten aldeko edo kontrako arrazoiak emanez. Gai naiz gutunak idazteko, gertaerei eta esperientziei ematen diedan garrantzia nabarmenduz.
	C1	Gai naiz testu argi eta ongi egituratuak osatzeko, neure ikuspuntua luze-zabal adieraziz. Badakit gai konplexuak adierazten gutun, idazlan edo txostenetan, garrantzizkoen iruditzen zaizkidan puntuak azpimarratuz. Gai naiz hartzaileari egokitutako estiloa erabiltzeko.
	C2	Gai naiz testu argiak jariotasunez idazteko, estilo egokian. Gai naiz gutun, txosten edo artikulu konplexuak idazteko, argudioak egitura logiko eta eraginkorraren bidez antolatuz, irakurleak puntu nagusiak ulertu eta gogoan har ditzan. Gai naiz idazlan profesionalak edo literatura-idatziz laburtzeko eta kritikatzeko.